

IBILALDIA. Jaialdiko CDak abestiaren lau bertsio biltzen ditu



JOSU ETXEBARRIOSTE
Junkera eta Luar Na Lubre talde galiziarreko musikariak Abusuko ikastolako hiru haurrekin.

Junkerak eta Amurizak egin dute aurtengo Ibilaldiko abestia

Luar Na Lubre talde galiziarrek hartu du parte abestian

Gorane Agirre | **BILBO**

Abusu ikastolak antolatuta maiatzaren 27an Bilbon egingo den Ibilaldiak baditu kanta eta bideoa. Kepa Junkera trikitilariak jarri dio musika eta Xabier Amuriza bertsolariak hitzak Bizkaiko ikastolen aurtengo jaialdiaren kantari. Ospetsuak egileak, baina baita ahots eza-gunak ere berori kantatzeko: Tontxu Ipiña, Mikel Urdangarin, Natxo de Felipe eta Abusu ikastolako ikasleak.

Junkera zeregin hauetan ibilia da, izan ere, 1992an Ibilaldia Durangon egin zenean ere bera arduratu baitzen abestia egiteaz. Orduan, Gari eta Celtas Cortos taldekoak jarri zituen abeslari. Oraingoan euskal abeslariak hautatu baditu ere, Luar Na Lubre talde galiziarreko musikarien laguntza ere izan du abestia egiteko.

Kultura ezberdinetako musikariak bilduz, Junkerak aurtengo Ibilaldiaren leloa *Hemen da geroa* islatu nahi izan du, alegia, etorkizunak dakarren kulturartekotasuna. Era berean, Junkerak atzoko aurkezpenean azaldu zuenez, «Luar Na Lubrekoak hemen dira erakusteko hizkuntza gutxituak eta musi-

KONTZERTUA

Junkera, Hevia eta Luar Na Lubre Bilbon larunbatean

Heviak, Luar Na Lubrek eta Kepa Junkerak Ibilaldia 2001en aldeko kontzertua eskainiko dute larunbat honetan Bilboko Euskalduna jauregian. Kontzertua arratseko 20.30ean hasiko da eta talde bakoitzak ordubetez joko du. Emanaldi honi amaiera emateko, kantari guztiek Abusu ikastolako haurrekin batera Ibilaldiaren kanta abestuko dute.

kak ezberdinak direnak biltzeko gaitasuna dutela».

Irailean kaleratuko duen diskoa prestatzen buru-belarri badabil ere, trikitilariak geldialdix bat egin du Ibilaldiko abestia lantzeko. Junkera pozik dago emaitzarekin, «abesti erraza da, jendeak ezagutu eta dibertigarria izan dadin. Abestiak bi zati ditu, lehenengoa ereserki baten antzekoa da, sentiberagoa eta bigarrena alaiagoa».

Edonola ere, Ibilaldiaren aurtengo CDak abestiaren lau bertsio jasoko ditu: aipatutakoa, bertsio instrumentala, Luar Na Lubre taldeko Rosa Cedron abeslariak kantatzen duena eta Junkerak «karaoke bertsioztat» jo zuena.

Bideoa, bestalde, Paradoxek landu du eta ikastolako haurrak dira protagonista.

EUSKARA. Euroitunaz esanak gaitzetsi ditu

Arinkeriaz aritzea leporatu dio EHk Gorka Knörr-i

Erredakzioa | **DONOSTIA**

Euskal Herritarrok taldeko Euskara eta Kultura ardura-dun Anjel Maria Elkanok gogor kritikatu du Gorka Knörr EAko europarlamentariak joan den astean Espainiak Euroituna berretsi izanari buruz esandakoa, eta hizkuntz eskubideena bezalako alor «garrantzitsuan arinkeriaz» jokatzeari leporatu dio.

Knörrek adierazi zuenez, abuztuaren 1etik aurrera, hau da, Euroituna indarrean jartzen denetik, Estrasburgora jo ahal izango dute euskal herritarrek babes eske hizkuntz bortxaketan aurre-

an. Elkanok gezurtatu egin du hori. «Hizkuntz Gutxiagotuen Itunak jasotzen duen kontrol sistema askoz ere xumeagoa da». Gogoratu duenez, adituek eta estatuetako ordezkariak osatu batzorde batek egiten du estatuen lanaren jarraipena. Batzordeak txostenak idatziko ditu, eta gobernuz kanpoko erakundeek ere gauza bera egin ahal izango dute. Erabakiak ere hartu ahal izango dituela gogoratu du, baina ez dira lotesleak izango. Hor-taz, EHk nabarmendu du Estrasburgoko epaitegiak ez duela eskumenik hizkuntz eskubideen alorrean.

EUSKARA. Hizkuntz eskubideak babestuko ditu

Behatokia jarri nahi du martxan Kontseiluak laster

Erredakzioa | **DONOSTIA**

Kontseilua Hizkuntza Eskubideen Behatokia lehenbailehen lanean hasteko urratsak egiten ari da. Hizkuntz Eskubideen Behatokiaren helburua «arlo publiko zein pribatuan hizkuntz eskubideak bermatzeko ekimenak egitea da», esan du Kontseiluak prentsa ohar batean.

Eginkizuna betetzeko arlo desberdinak jorratuko ditu. Horrela, herritarrek eta elkarteek bertan jarri ahal izango dituzte salaketak, telefono zerbitzu baten bidez; Behatokiak salaketak bideratuko ditu.

Hizkuntz eskubideen egoerari buruzko txostenak prestatu eta horiei «ahalik eta zabalpen eraginkorrena» ematea izango da Behatokiaren beste eginkizunetako bat. Era berean «egin daitezkeen lege berrietan edo ekimen publikoetan hizkuntz eskubideen bermeaz arduratuko da» Behatokia.

Kontseiluak Hizkuntz Eskubideen Behatokiaren beharra ikusten du, «euskal herriarrok hizkuntz eskubideak kolokan jartzen eta bortxatzen ari direla adierazten duten datuak gero eta kezagarriagoak baitira», bere esanetan.

APIRILAK 21, 20:30

KEPA JUNKERA HEVIA LUAR NA LUBRE

EUSKALDUNA JAUREGIA • BILBO

SARRERAK: 2.800, 3.000 eta 4.000pta. Aurrezalmenta TELEKAN

abusu ikastola

Leguntzaila: Egunkaria

BI-2001-IBI

Hemen da geroa